

IZENBURUA

Bazen behin, Natalia izeneko neskato bat, bere gurasoekin eta bere txakurrarekin Tarafloren (helehoria zen. Nataliari asko gustatzen zitzaizkion denetariko animaliak. rrian) bizi zena. Neskak begi urdinak zituen, ahoan aparatoa zeukan, txikia eta iHorrez gain, diruz gainezka dagoen neska horietako bat zen. Gainera, txakurra zeukan Argi deitzen zena. Argi, iletsua, leuna, azkarra, indartsua eta hankamotza zen, baina azeri bat ere nahi zuen, eta Zuri deituko zuen; leuna, zuria, azkarra, indartsua eta buztan luzea izango zela erabaki zuen. Gurasoek ez zioten uzten bi animalia edukitzen eta esaten zuten:

- Ez al daukazu nahikoa txakurrarekin? Guk bai! -esaten zuten biak batera.

Egunak joan egunak etorri, Nataliak bere pentsamenduetan zuen gauza bakarra azeri bat edukitzea zenez, plan bat pentsatu zuen;

- Gauean, etxetik irtengo naiz eta Zurgingungo mendira joango naiz. Ondoren, mendira igo eta azeriren bat bilatuko dut. Menditik jaitsi eta biharamunean etxean egongo naiz azeriarekin. -esan zuen bere barnerako.

Gaua irtsi zenean, Nataliak bere gauza guztiak hartu eta arrapalada batean etxetik irten nahi zuen, baina zoritxarrez, Argi esnatu egin zen. Horren ondorioz, Argi ere eraman egin behar izan zuen. Etxetik irten eta denbora batera, Argiri, ahoan zeukan pilota jausi zitzaion eta Zurgingungo mendirantz abiatu ziren. Natalia izerdi patxetan zegoen, oso urduri baitzegoen.

Denbora bat igaro ondoren, harri handi bat aurkitu zuten, eta zerbait grabatuta zeukala konturatu zen;

“Hango gailurrera heltzea nahi baduzu, 2 erronka gainditu beharko dituzu”.

1 - Hiru asmakizunen erantzunak ondo erantzun behar dituzue.

2 - Bide erdian dagoen zuhaitz handi bat eskalatu egin behar duzue.

Nataliak, irakurri orduko, pixka bat larritu egin zen, baina biak batera aurre egin zioten arazoari, atzera begiratu gabe. Apur bat geroago, haitzulo batera iritsi ziren. Haitzulo barruraino sartu eta Nataliak ate bat zegoela nabaritu zuen. Baina ez zekien nola zabaldu, ahots batek esan zion arte;

- Atearen beste aldera iritsi nai baldin baduzue, hiru asmakizunen erantzunak ongi erantzun behar dituzue. Baina ez badituzue hirurak ondo erantzuten, hemen geldituko zerete, betiko!

Nataliak onartzea erabaki zuen, beraien irtenbide bakarra zelako.

- Ongi da, asmatzen baditugu atearen beste aldera joango gara, eta ez badugu lortzen hemen geldituko gara... betiko!
- Lehenengo asmakisuna:
Balio du jateko
balio du ukitzeko
txalo egiteko
eta, nola ez!
orri hau pasatzeko.
- Eskuak! -esan zuen Nataliak.
- Bai -erantzun zuen ahotsak. - hurrengo asmakizuna:

Ez da dendaria,
ez da dantzaria,
eta berak egunero
prestatzen ditu
gosaria, afaria
eta bazkaria.

Nor naiz?

- Sukaldaria!
- Bai - erantzun zuen ahotsak erdi haserre.

Bat-batean ahotsak esan zuen:

- Azkena eta zailena!

Nataliak pentsatu zuen... eta urduritzen hasi zen.

- Hirugarren eta azken asmakisuna:

Zirrin, zarran,
zirrin, zarran,
zuloak ixten ditu,
zuloak eginez.

Nor naiz?

- Ummm... -pentsakor zegoen Natalia - . Badakit! Jostuna!

Atea ireki, eta Natalia eta Argi arin, atetik pasatu ziren.

Bapatean, pasatu ostean atea itxi egin zen. Handik gutxira, zuhaitz handi bat agertu zen bidearen erdian. Zuhaitza zeharkatu beharra zeukaten, baina zoritxarrez, ez zekien nola. Argik hosto handi baten gainera salto egin zuen eta haizearen bultzadarekin beste aldera iritsi zen. Nataliak gauza bera egin zuen eta beste aldean lurreratu zen. Beste aldera iritsi zirenean, azeri txiki bat ikusi zuten, berak nahi zuen bezalako azeria.

Argi eta azeria motxilan sartu eta azkar-azkar maldan behera jaitsi ziren. Etxera iritsi zirenean, gurasoei kontatu zien abentura eta Nataliak gehitu zuen:

- Familiarik gabe aurkitu nuen, azeri gaixoa...

Guresoek, hitz horiek entzunda, azeri txikia ikusi zutenean eta Nataliarekin oso ondo moldatzen zela ikusita, etxean gelditzen utzi zioten. Natalia azkenean pozik bizi zen, familiarekin, ikastolan, lagunekin eta bere bi lagun berezi onenekin, Argi eta Zuri. Betiko bizi izan zen pozik, bizi guztirako!

?

Uxua